

9. Gaia

Farmazialarien Elkargo Korporatiboak

Legeria eta deontologia farmazeutikoa

1. LEGE XEDAPENAK

- Estatu mailako legeria
- Legeria autonomikoa

2. KONTZEPTUA

3. FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALAK (FEO, COF)

- Egitura
 - Estatu mailakoa
 - Autonomia mailakoa
- Funtzioak
- Elkargokidetzak
- Antolakuntza

4. FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALEN KONTSEILU OROKORRA (FEOKO, CGCOF)

- Funtzioak
- Antolakuntza

ESTATUKO LEGERIA

Elkargo Ofizialei buruzko Legea (2/1974) (*Ley sobre Colegios Profesionales*)

Konstituzioa (1978)

Lurzoruaren eta Elkargo Profesionalen Neurri Liberalizatzaileei buruzko Legea (7/1997) (*Ley de medidas liberalizadoras en materia de suelo y colegios profesionales*)

Ondasun eta Zerbitzuen Merkatuko Konpetentzia Areagotzeko Premiazko Neurriak arautzen dituen Legegintzako Errege Dekretua (6/2000)

(*Real Decreto-Ley (6/2000) de Medidas Urgentes de Intensificación de la Competencia en Mercados de Bienes y Servicios*)

Abenduaren 22ko 25/2009 Legea, zenbait lege aldatzen dituena, zerbitzu-jarduerak eta horien ekintzak libreki eskuratzeari buruzko Legea egokitzeko.

(*Ley 25/2009, de 22 de diciembre, de modificación de diversas Leyes para su adaptación a la Ley sobre el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio*)

EAEko LEGERIA

Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko Legea (18/1997).

164/1997 Dekretua, ordenazio farmazeutikoaren eskumen batzuk Euskal Autonomi Elkarteko Botikarien Elkargo Ofizialen esku uzteko baimena emateko dena.

118/2001 DEKRETUA, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseilua sortzen duena.

Kontzeptua

- ▶ Zuzenbide publikoko korporazioak
 - Profesioaren garapenean sor daitezken arazoetan, bere kideak Administrazioaren aurrean ordezkatzeko eta babesteko gaitasuna duen erakundea
- ▶ Legeak babestutakoak
- ▶ Estatuak aintzatetsiak
- ▶ Nortasun juridikoa
 - Talde baten ordezkaritza hartzen duten erakundeen nortasuna, talde horren jardueren erantzule izanik, erantzukizun horiek zuzenean kideei egokitu gabe
- ▶ Beraien helburuak betetzeko gaitasuna

FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALAK

Estatu mailako egitura

- Probintzia: Farmazialarien Elkargo Ofiziala FEO (COF)
- AAEE: Kontseilua (Adb EAE)
- Estatua: Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Orokorra
FEOKO (CGCOF)

FEO (COF) ⇒ Estatutuak ⇒ FEOKO (CGCOF)

FEOKO (CGCOF) ⇒ Estatutuak ⇒ MSSSI

FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALAK

Egitura autonomikoa (Euskadi)

EAEn 3 FEO (COF):

- Araba,
 - Bizkaia,
 - Gipuzkoa
- Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko **Legea (18/1997)**.
 - **164/1997 Dekretua**, ordenazio farmazeutikoaren eskumen batzuk Euskal Autonomi Elkarteko Botikarien Elkargo Ofizialen esku uzteko baimena emateko dena.
 - **118/2001 DEKRETUA**, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseilua sortzen duena.
 - **Agindua 2003koa**: Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluaren estatutuak onartzeko

FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALAK

Egitura autonomikoa (Euskadi)

- **164/1997 Dekretua**, ordenazio farmazeutikoaren eskumen batzuk EAEko Botikarien Elkargo Ofizialen esku uzteko baimena emateko dena.
Baimena ematea Osasun sailburuari ondoren aipatzen diren eskumenak EAEko Botikarien Elkargo Ofizialen esku, osorik edo zati batean, utz ditzan:
 - a) farmazi bulegoak eta botikinak lekuz aldatzeko baimen–eskariak bideratzea eta ebazpena ematea.
 - b) farmazi bulegoetan eta botikinetan obrak egiteko baimen–eskariak bideratzea eta ebazpena ematea.
 - c) farmazi bulegoak eskualdatzeko baimen–eskariak bideratzea eta ebazpena ematea.
 - d) botikinak sortzeko baimen–eskariak bideratzea eta ebazpena ematea.
 - e) farmazi bulegoak eta botikinak ixteko baimen–eskariak bideratzea eta ebazpena ematea.
 - f) laguntzaileak, erregenteak eta ordezkioak izendatzeko baimen–eskariak bideratzea eta ebazpena ematea.
 - g) farmazi bulegoetan bezeroak atenditzeko ordutegia ezartzeko baimen–eskariak bideratzea eta ebazpena ematea.

FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALAK

Farmazialarien Elkargo Ofizialen Funtzioak

- Farmazialarien lanbideko jarduera arautu
- Elkargoko kide diren farmazialarien interesak ordezkatu eta defendatu
- Lanbideko jarduera behar bezalakoa dela begiratu; deontologia eta lanbideko duintasuna gordetzen direla ziurtatu
- Jarduerak eta zerbitzuak antolatu (prestakuntza...)

FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALAK

Elkargokidetzaren derrigorrezkoa:

- Farmazia bulegoa
- Ospitaleak
- Industria eta biltegiak: zuzendari teknikoa

Farmazialarien Elkargo Ofizialen antolakuntza (estatutuak)

- Lehendakaritza
- Gobernu batzordea (Gobernu organoa)
- Organo plenarioa, batzar orokorra, osoko bilkura (ohiko/aparteko bilkurak)

FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALAK

Farmazialarien Elkargo Ofizialen antolakuntza

◦Gobernu Batzordea

- Lehendakaria
- Lehendakariordea
- Idazkaria
- Diruzaina
- Kontularia
- Bokalak
 - Kide kopurua (kolegiatu kopuruaren arabera)
 - Sekzioko kidetzak:

*FEOKOrenak

- | | |
|--------------------------|--------------------------------|
| - Industria | - Elikadura |
| - Banaketa | - Sendabelarrak eta Homeopatia |
| - Analisi klinikoak | - Farmazia bulegoa |
| - Optika eta audiometria | - BF titularrak |
| - Ortopedia | - Ospitalea |
| - Dermofarmazia | - Ikerketa eta irakaskuntza |

Farmazialarien Elkargo ofizialen Kontseilu Orokorraren funtzioak www.portalfarma.com

- Probintzietako Elkargoen araudiak onartzen ditu
- FEOtako ordezkapena / profesioaren koordinaziorako eta kooperaziorako organoa:
 - Arlo nazionalean
 - Nazioartean:
 - Europar : Agrupación Farmacéutica Europea (PGEU)
 - Amerikan : Federación Panamericana de Farmacia (FEPAFAR)
 - Nazioartean: Federación Internacional Farmacéutica (FIP)
- Legeria farmazeutikoaren betetzea zaindu
- Gizarte Segurantzarekin hitzarmenak arautu eta bideratu

Farmazialarien Elkargo ofizialen Kontseilu Orokorraren funtzioak

- Elkargoen artean bitartekari bezala aritu, elkargoen funtzionamendua ikuskatu
- Jarduerak
 - Argitalpenak
 - Sendagaien datu-basea
 - Etengabeko formazioa
 - Aholkularitza
 - Osasun hezkuntza

Farmazialarien Elkargo ofizialen Kontseilu Orokorraren antolakuntza

- Zuzendaritza Batzordea
 - Lehendakari 1
 - 3 Lehendakariorde
 - Idazkaria
 - Diruzaina
 - Kontularia
- Osoko Bilkura (Organo betearazlea):
 - Zuzendaritza Batzordea
 - 17 bokal (AAEE) + 12 bokalia (modalitate)
- Asanblada
 - Zuzendaritza Batzordea
 - FEOfako 52 lehendakari